



FUNTSEZKO BALIABIDEAK

Gure proiektua funtzionatzeko behar ditugun elementu garrantzitsuenak hurrengoak dira:

Kontuan hartuz hotel bat eraikiko dugula, hainbat gauza izan behar ditugu kontuan, hala nola, janari-enpresak, hotela eraikitzeke lursaila eta abar. Noski halako proiektu bat aurrera eramateko esperientzia duen jendea ere behar dugu monitore eta langile moduz, gu aparte.

- Baliabide fisikoak: eraikitzeke lursaila, gimnasioetarako makinak, elikagaiak eta edariak, banketeak eta zerbitzu handiak, logela eta ostatua, beste zerbitzu batzuk (telefonoak, adibidez), konbentzio-aretoak...
- Baliabide intelektualak: guk ditugun ezagutzak eta ikasketak, hala nola, arkitektura ikasketak, ikasketa ekonomikoak hotelaren kudeaketa eramateko, fisio bat bezeroak dituzten ezgaitasun fisikoetan laguntzeko eta psikologia ikasketak bezero ezinduei laguntzeko eta hobeto ulertzeko.

Esperientzia familiar bat izango da, eta jarduera asko egingo dira hotelean eta hoteletik kanpo. Hotelean animazioak eta mota guztietako ikuskizunak egongo dira, bai haurrentzat bai helduentzat.

Horrez gain, Valentziara joateko eta han gozatzeko ekintza ezberdinak antolatuko ditu hotelak.

Halaber, jatetxe eta kultur jarduera desberdinen gomendioen atal bat egongo da beren kabuz joan nahi duten pertsonentzat.